



2020/2021 IKASTURTERAKO PROPOSAMENA

Haur eta nerabeak ikastetxeetara joan gabe **denbora luzea** pasa ostean (martxotik irailera), eta berdinkideekin espazio zein denbora aldetik, harremana izateko zailtasunak izan ostean, ezinbestekotzat jotzen dugu **HaurrakEreBai** taldeetik 0-18 urte bitarteko haur eta nerabeak emozionalki lagunduak izateko beharra, izan ere, etapa hauetan ezartzen dira helduaroan **osasun integral** ezin hobe bat izateko oinarriak.

Ezinbestekoa sentitzen dugu ikastetxe barruan **zaintza eta babes**a kalitatezkoa eta gertukoa izatea, ikaslegoa gertutasunez, afektuz, begiradaz eta entzuteaz **laguntzea**. Aintzakotzat hartuko dugu, **besteekin harremana** izatean garatzen garela pertsona gisa.

EAE eta Nafarroako hezkuntza ordezkariak argitaratzen dituzten protokolo eta argibide anitz eta **aldakorrak** ikusita, benetan beharrezkoa irizten zaigu osasun kontzeptua **ongizate fisiko, mental eta sozial gisa** ulertzea. Argi daukagu osasun kontzeptua ez dela soilik gaixotasun eza, beraz, beldurrik gabe onartzen dugu eta herritar gisa dagokigun erantzukizunez, kutsatu gaitzezkeela **naturalizatzeko** beharra.

Sei hilabete daramazkigu herrialde desberdinetan argitaratutako **ebidentzia zientifikoa** gainbegiratzen. Datu fidagarri anitz pilatu ditugu, gaixotasun hau pairatzen duten adin txikiko gehienek, **modu arinean** (sintomatologia arinarekin) egiten dutela bermatzen dutenak, gainera kutsatze maila aldetik ere, pertsona helduok baino kutsakortasun **maila baxuagoa** dutela ikusi da hainbat ikerketetan.

Ondorioztatu dugu, adin txikikoek **inoiz ez** dutela pandemia hau behin ere aurrera eraman edo bideratu, honez gain, beste gaixotasun batzuekin konparatuz, COVID19ak haurrengan duen eragina **barregarria** da.

Hau guztia esanda, HaurrakEreBai taldeetik **onartezina** deritzogu:

- Ikastetxeetan **1,5 metroko distantzia** soziala ezartzea.
- Musukoak** edo maskarak derrigorrez erabili beharra.
- Familiak** ikastetxeko bizitzatik kanporatzea.

Orain inoiz baino gehiago, familia, eskola eta gizartea **elkarlanean** aritu behar gara **zaintzeko / elkar-zaintzeko**, helburuarekin. Baita ongizate soziala bilatzeko ere, krisia eta isolamendutik haratago.

NEURRI MURRIZTAILEAK EKIDITZEN LAGUNTZEKO EKIMEN BATZUK:

A) INSTITUZIOAK / HEZIKETA- ZENTROAK

1. Umeen ratioa erdira murriztea lehentasuntzat jotzen dugu

Hainbestetan eskatu den eta hain beharrezkoa den ekimen hau aurrera eramateko ezinbestekotzat jotzen dugu **irakaslegoaren plantilla handitzea** edo/eta eskolen eta familien arteko elkarlan estuagoa eta parte-hartzaileagoaren aldeko apustua egitea.

Zentzu honetan, hain berezia den egungo egoera honetan, prest leudeken familiek **babesa** eskaini ahal izango lukete (laguntzaileak) (bai eskolen instalazioetan bai zentroz kanpoko irteeretan) betiere **dozente baten ardurapean**. Garrantzi handiko gaia izanik, Eusko Jaurlaritzak aukera hau azter dezala eskatzen dugu. Baita ikasleekiko begirunea adierazten duen kalitatezko heziketa bermatzeko, ezinbestekoak diren ekintza desberdinak burutzeko famili horien laguntza onar dezala.

2. Aurreko puntuan hitz egindakoari jarraituz, oinarritzotzat jotzen dugu espazio alternatiboak dibertsifikatzea eta/edo areagotzea

Heziketa-zentroen eskuetan **espazio anitzak** jartzea: lehenago aipatutako ratioaren murrizketa hori errazteko eta osatzeko eta aipatutako irakasleen kopuruaren goera bideratzeko, hau premia biziko gaia izanik.

Kultur Zentroetako gelak erabiltzea: normalean arratsaldez erabiltzen direnez erabilgarri izango lirateke eskolen ordutegietan, espazio irekiak, lorategiak eta/edo plazak.

3. Irakaslegoaren formazioa bermatzeko beharrezkoak diren baliabide material zein giza-baliabideak eskaintzea.

Horrek ahalbidetuko du **harrera emozionala** eskaintzea ume eta nerabeei eskolaratze berri honetan.

Orain, inoiz baino gehiago, egoeraren berezitasunak **irakasle prestuak** eskatzen ditu: emozionalaki beharrianak izango dituen ikaslegoari, begirunetik, ulermenetik eta erreparaziotik harrera egiteko gai direnak.

Garrantzitsua da denbora, espazioa eta irakasle trebatuak izatea, ezagupen kurrikularrak irakasten hasi baino lehen ikasleei **ahotsa, entzutea eta konfiantza** eskaintzeko.

Bizitakoa barneratu, aztertu eta errealitatea beldurrik gabe asumitu norberaren ardura pertsonalaz jabetuz. **Gelako talde-lotura** (eta eskolako taldeko kide-tza) bermatzeak eta garapenerako oinarria den giza-harremanen konponbideak lehentasuna izan beharko lukete gelako ibilbide berri honetan

4. Kanpoko eta natur-espazioetako hezkidetzaren aldeko apustua egitea: ikaslegoaren eskolak gela barruan zein gela kanpoan emango lirateke.

Kanpoko eta natur-espazioei lehentasuna ematea. Jakin badakigu ingurune horietan zailagoa dela kutsapena eta sistema immune eta biologikoa estimulatu egiten dela.

Europako iparraldean **tradizio luzea** duen eredia da, (gurea baino klimatologia askoz ere gogorragoarekin) eta egungo krisialdiari erantzuna emateko hainbat lekutan ezartzen ari da.

Natur-espazioetako Hezkidetza eredia ezartzeko azken hiria **New York** izan da. Gakoa bai irakasleak bai umeak arropa egokiaz hornitzea da, baita zentroein kanpoaldeko heziketari buruz informatzeko beharrezkoak diren baliabideak eskaintzea ere.

B) INSTITUZIOAK /ENPRESAK

Lana eta bizitza bateragarri bihurtzeko berehalako neurriak ezartzea eskatzen dugu, edozein gaixotasun zein derrigorrezko berrogeialdiren bat suertatzen bada, familiek euren umeen zaintza bermatu ahal izateko. Gakoa aipatutako aspektu honetan dagoela uste dugu: familiok Gobernuarekin batera **ardura partekatua** hartu behar dugula gai honetan.

Hori dela eta orain arte jasan dugun **instituzio/enpresagandiko abandonuari EZETZ** esaten diogu eta irmoki aldarrikatzen ditugu ondorengo neurriak: umeak zaintzeko muga gabeko **aparteko baimena**, ordutegi **malgutasuna**, txanden malgutasuna eta amatasun/aitatasunarentzako **laguntzak**.

“Derrigorrezko eskolaratzean ezartzen diren neurriek adingabearen osotasuna, osasun fisiko zein mentala arriskuan jartzen badituzte zilegitzat jotzen dugu beraien heziketaren azken hitza euren gurasoek izatea. Kasu horretan familiek umeen heziketarekin jarraitzeko ikusten duten modurik egokiena hautatzeko aukera izan behar dutela uste dugu”.

ONDORIOAK:

Azken hausnarketa gisa, honakoa azpimarratu nahiko genuke: pertsona oroaren garapenaren eta osasun osoaren **aurka** doala **beldurrez eta beldurrean hezitzea** eta zaintzea.

Errespetuan, kooperazioan eta **elkartasunean** oinarritutako heziketan sinesten dugu.

HaurrakEreBai-tik ez dugu onartzen urruntze fisikoa, zatiketa eta beldurra ardatz duen heziketarik ez edozein testuingurutan ezta aitzakipean ere. Haurtzaroaren **oinarrizko beharrian eta eskubideen** kontrako eraso argia da, eta analogiaz, egungo gizartearekiko eraso argia (umeak eta nerabeak garrantzi handikoak izanik). Saia gaitezen haurtzaroaren ondoan egoteko modua aurkitzen, **tratu onetik**, errespetutik eta **bizitzarako beharrianetatik** abiatuta, benetako etorkizuneko gizarte errespetudun eta osasuntsurako bidea hasteko.